



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea - Idazkaria / Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

**Recurso 8/2021 errekurtsua**

**Aclaración Resolución 3/2022 ebazpena argitzea**

Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaur egindako bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, honako argitze erabaki hau hartu du, aho batez:

El Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo de aclaración.

**LEHENA.-** 2022ko urtarrilaren 17ko 3/2022 Ebazpenaren bidez, auzitegi honek erabaki zuen baiestea EREITEN KULTUR ZERBITZUAK SLk kontratazio arloan aurkeztutako errekurtsu berezia, eta ondorioz:

**PRIMERO.-** Mediante Resolución 3/2022 de 17 de enero, este Tribunal acordó estimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por EREITEN KULTUR ZERBITZUAK, S.L. y, en consecuencia:

- Indargabetzea Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko diputatuaren maiatzaren 27ko 230/2021 Foru Agindua, GESTIÓN DE ARCHIVOS Y DOCUMENTACIÓN SL enpresari Gipuzkoako Foru Aldundiko artxibo historikoen dokumentazio garaikidea antolatzeko eta deskribatzeko zerbitzu-kontratua esleitzea ebazten duena, eta ekainaren 3ko 274/2021 Foru Agindua, hura baliozkotzea ebatzi zuena.

- Anular la Orden Foral 230/2021, de 27 de mayo, del diputado del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes, por la que se resuelve adjudicar a GESTIÓN DE ARCHIVOS Y DOCUMENTACIÓN, S.L. el contrato de servicios de organización y descripción de la documentación contemporánea de los archivos históricos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como la Orden Foral 274/2021, de 3 de junio, por la que se resolvió convalidar aquélla.

- Jarduketak atzera eramatea, GESTIÓN DE ARCHIVOS Y DOCUMENTACIÓN SL enpresak aurkeztutako eskaintza alde batera utzita, prozedurak bere izapideen bidez jarrai dezan.

- Retrotraer las actuaciones para que, con exclusión de la oferta presentada por GESTIÓN DE ARCHIVOS Y DOCUMENTACIÓN, S.L., continúe el procedimiento por sus trámites.

**BIGARRENA.-** Auzitegi honetako erregistroan 2022ko urtarrilaren 28an aurkeztutako idatziaren bidez, departamentu kontratatzaileak eskatu du argitzeko ea ebazpenak baliogabetzeak eta adjudikazioduna baztertzek eragina duten kontratuaren bi sortetan edo soilik 1. sortan.

**SEGUNDO.-** Por escrito presentado en el registro de este Tribunal el día 28 de enero de 2022, el departamento contratante ha solicitado aclaración sobre si la anulación de las resoluciones y la exclusión de la adjudicataria afectan a los dos lotes en que está dividido el contrato o solo al lote 1.

**HIRUGARRENA.-** Kontratuen arloko erabakiak berrikusteko prozedura berezien erregelamenduak, irailaren 11ko 814/2015 Errege Dekretuaren bidez

**TERCERO.-** Dispone el artículo 32 del Reglamento de los procedimientos especiales de revisión de decisiones en materia contractual,



onartutakoak, 32. artikuluan xedatzen du ezen, kontratazio organoak edo bertan agertu den errekurtsu prozedurako interesdunen batek uste badu ebazpenean kontzeptu ilunen bat edo akats materialen bat dagoela, hura argitzeko edo zuzentzeko eskatu ahal izango duela auzitegiaren erregistroan, jakinarazpena jaso eta hiru egun balioduneko epean. Eskatutako argitze edo zuzentzeari buruzko erabakia hartu beharko du auzitegiak, hura jaso eta hurrengo egun baliodunean.

**LAUGARRENA.-** Auzitegi honek errekurtsua baiestea eragin zuen arrazoia ebazpenaren hamaikagarren oinarriaren B) atalean adierazten da, honela:

*«AKPAren ezaugarrien taulako 15. atalak honako hau eskatzen du baliabideak nahitaez adskribatzeko konpromisotzat:*

*«Lanak gauzatzeko, honako hauek behar dira:*

- *Historiako lizentziatura edo gradua.*
- *Gutxienez 2 urteko esperientzia izatea honako ezaugarri hauek dituzten lanak egiten: artxiboko dokumentu-funtsak antolatzea».*

*Era berean, baldintza teknikoen agiriaren 7. atalak bi lotetan mugatzen du artxibo bakoitzean lan egingo duten pertsonen gehieneko kopurua.*

*AKPAren IX. eranskinean (eskaintza ekonomikoa eta formulen bidez ebaluatzekoak diren eskaintzaren beste elementu batzuk), HIRU zenbakidun artxibo elektronikoan sartu zenean, GESARDOCek zehaztu zuen zein langilek garatuko zituen kontratuaren zereginak, haien titulazioa eta esperientzia adierazita. Eta eranskin horretan adierazi zuen kontratua gauzatzeko proposatutako pertsonetako bat Artearen Historian lizentziatua zela, eta bere unibertsitate-titulua kopiatu aurkeztu zuen.*

*Kontratazio-organoak baliabideak adskribatzeko konpromisoari buruz egiten duen interpretazioa ezin du partekatu Epaimahai honek, AKPAren ezaugarrien taulako 15. atalaren arabera. Izan ere, atal horrek Historiako lizentziatura edo gradua eskatzen du lanak gauzatzeko, hortik argi eta garbi ondorioztatzen da kontratuaren lanak egingo dituzten langile guztiek eduki behar dutela lizentziatura edo gradu hori, eta ez beste bat.*

aprobado por Real Decreto 814/2015, de 11 de septiembre, que si el órgano de contratación o alguno de los interesados en el procedimiento de recurso que hubiera comparecido en él considera que la resolución contiene algún concepto oscuro o algún error material, podrá solicitar su aclaración o rectificación en el registro del Tribunal dentro del plazo de tres días hábiles a contar desde la recepción de su notificación. El Tribunal deberá pronunciarse sobre la aclaración o rectificación solicitada dentro del día hábil siguiente a aquél en que la hubiera recibido.

**CUARTO.-** El motivo que llevó a este Tribunal a estimar el recurso se expresa en el apartado B) del fundamento undécimo de la resolución en los siguientes términos:

*«El apartado 15 del cuadro de características del PCAP exige como compromiso de adscripción obligatoria de medios:*

*«La materialización de los trabajos requiere:*

- *Licenciatura o grado en Historia.*
- *Disponer de una experiencia mínima de 2 años en la realización de trabajos de estas características: organización de fondos de documentos de archivo».*

*A su vez, el apartado 7 del PPT limita en ambos lotes a dos el número máximo de personas que desarrollen las labores en cada archivo.*

*En el Anexo IX del PCAP (oferta económica y otros elementos de la oferta evaluables mediante fórmulas) que incluyó en el archivo electrónico nº TRES, GESARDOC concretó el personal que desarrollaría las labores del contrato, con la indicación de su titulación y experiencia. Y en ese anexo indicó que una de las personas propuestas para la ejecución del contrato era Licenciada en Historia del Arte, y aportó copia de su título universitario.*

*La interpretación del compromiso de adscripción de medios que hace el órgano de contratación no puede ser compartida por este Tribunal a tenor del apartado 15 del cuadro de características del PCAP, el cual requiere para la materialización de los trabajos la licenciatura o grado en Historia, pues de ahí se desprende claramente la exigencia de que todo el personal que vaya a realizar los trabajos objeto del contrato disponga de esa licenciatura o grado y no de otra distinta.*



*Hori dela eta, kontratazio-mahaiak, egiaztatu zuenean GESARDOC enpresak kontratuari atxikitze konpromisoa hartu zuen pertsonetako batek ez zituela betetzen eskatutako titulazio-baldintzak, eskaintza baztertu egin behar zuen, kontuan hartuta, gainera, bai kontratuari atxiki beharreko langileen graduondoko, masterreko eta doktoregoko kualifikazioa, bai adskribatu beharreko langileen eskatutako gutxienekoaz besteko lanbide-esperientzia, konfiguraturata daudela formulak aplikatzearen bidezko esleitzeko irizpide gisa.*

*Geroago, Filosofia eta Letretako (Geografia eta Historia Dibisioa) lizentziadun bat jartzeak, Artearen Historiako lizentziadunaren ordeztu, ez du ez-betetze hori konpontzen, ezin baita ordeztu pleguetako baldintza saihestezin bat betetzen ez zuen taldeko kide bat baldintza hori betetzen duen beste batekin.*

*KEAANren ekainaren 20ko 660/2019 Ebazpenak berak, non kontratazio-organoak ordezkapen hori onartzeko erabakia oinarritzen duen, gogorarazten du: «(...) Baldintza-agirietan giza baliabideak adskribatzeko konpromisoa eskatzen da, baina konpromiso hori ez da identitate jakin bat duten pertsonen buruzkoa, baizik eta titulazio eta esperientzia jakin batzuk dituztenei buruzkoa. Beraz, argi dago identitate-aldaketa ezin dela eskaintzaren aldaketatzat hartu, baldin eta eutsi egiten bazaie eskaintzako titulazio eta esperientzia baldintzei (edo baldintza teknikoaren agiriaren eskatutako gutxienekoari)».*

*Sensu contrario, ezin da onartu titulazioaren baldintza betetzen ez duen pertsona baten ordeztu hura betetzen duen beste bat jartzea, eskaintza aldatu egingo litzatekeelako hura aurkeztu ondoren. AKPAren 29. klausulak debekatu du aldaketa hori, eta kontratazio publikoa arautzen duten gardentasunaren, diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioen aurkakoa da. Era berean, ez zen bidezkoa argibiderik eskatzea, horren muga baita, hain zuzen ere, ez izatea eskaintza berri bat proposatzearen baliokidea».*

**BOSGARRENA.-** Departamentu kontratatzaileak argitzeko eskaeran adierazten duenaren arabera, baliogabetze arrazoi horrek 1. sortari (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, Tolosa) bakarrik eragiten dio, eta ez 2. sortari (Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa, Oñati).

Ondorioz, adjudikazioa baliogabetzea eta GESTIÓN DE ARCHIVOS y DOCUMENTACIÓN SL enpresaren eskaintza kanpo uztea 1. sortari bakarrik dagozkiola ulertu behar da.

*Por ello, la Mesa de contratación, al constatar que una de las personas que GESARDOC se comprometió a adscribir al contrato no cumplía los requisitos de titulación exigidos, tenía que haber excluido su oferta, teniendo en cuenta, además, que tanto la cualificación de postgrado, másteres y doctorado del personal a adscribir al contrato, como la experiencia profesional adicional a la mínima exigida del personal a adscribir están configuradas como criterios de adjudicación a valorar mediante la aplicación de fórmulas.*

*El hecho de que la persona Licenciada en Historia del Arte fuera sustituida posteriormente por otra persona Licenciada en Filosofía y Letras (División Geografía e Historia) no subsana ese incumplimiento porque no se puede sustituir un miembro del equipo que incumplía un requisito ineludible de los pliegos por otro que sí lo cumple.*

*La propia Resolución nº 660/2019, de 20 de junio, del TACRC, en la que el órgano de contratación funda su decisión de aceptar esa sustitución, recuerda que “(...) el compromiso de adscripción de medios personales exigido por los Pliegos no se refiere a personas con una identidad determinada, sino con unos requisitos de titulación y experiencia, por lo que resulta evidente que el cambio de identidad, conservando los requisitos de titulación y experiencia ofertados (o los mínimos exigidos por el PPT), no puede reputarse una variación de la oferta”.*

*A sensu contrario, la sustitución de una persona que no cumple el requisito de titulación por otra que sí lo hace no puede ser admitido porque implicaría una modificación de la oferta después de haber sido presentada, algo vedado por la cláusula 29 del PCAP y contrario a los principios de transparencia, no discriminación e igualdad de trato que rigen la contratación pública. Tampoco hubiera sido procedente solicitar aclaración, pues ésta tiene como límite precisamente que no equivalga a proponer una nueva oferta”.*

**QUINTO.-** Como el departamento contratante señala en su solicitud de aclaración, ese motivo de nulidad afecta únicamente al lote 1 Archivo General de Gipuzkoa (Tolosa), no así al lote 2 Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa (Oñati).

En consecuencia, la anulación de la adjudicación y la exclusión de la oferta de GESTIÓN DE ARCHIVOS Y DOCUMENTACIÓN, S.L. deben entenderse referidas exclusivamente al lote 1.



Horren arabera, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

### ERABAKITZEN DU

### ACUERDA

Argitzea urtarrilaren 17ko 3/2022 Ebazpenaren xedapen zatia. Honela idatzita geratuko da:

Aclarar la parte dispositiva de la Resolución 3/2022 de 17 de enero, que debe quedar redactada en los siguientes términos:

**Zati batean** baiestea EREITEN KULTUR ZERBITZUAK SLk kontratazio arloan aurkeztutako errekurtsu berezia, eta ondorioz:

Estimar **en parte** el recurso especial en materia de contratación interpuesto por EREITEN KULTUR ZERBITZUAK, S.L. y, en consecuencia:

**LEHENENGOA.-** Indargabetzea maiatzaren 27ko 230/2021 Foru Agindua, GESTIÓN DE ARCHIVOS Y DOCUMENTACIÓN SL enpresari Gipuzkoako Foru Aldundiko artxibo historikoen dokumentazio garaikidea antolatzeko eta deskribatzeko zerbitzu-kontratua esleitzea ebatzen duena, eta ekainaren 3ko 274/2021 Foru Agindua, hura baliozkotzea ebatzi zuena, **soilik Gipuzkoako Artxibo Orokorrari (Tolosa) buruzko 1. sortari dagokionez.**

**PRIMERO.-** Anular la Orden Foral 230/2021, de 27 de mayo, por la que se resuelve adjudicar a GESTIÓN DE ARCHIVOS Y DOCUMENTACIÓN, S.L. el contrato de servicios de organización y descripción de la documentación contemporánea de los archivos históricos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como la Orden Foral 274/2021, de 3 de junio, por la que se resolvió convalidar aquélla, **exclusivamente en lo que se refiere al lote 1 Archivo General de Gipuzkoa (Tolosa).**

**BIGARRENA.-** Jarduketak atzera eramatea, GESTIÓN DE ARCHIVOS Y DOCUMENTACIÓN SL enpresak **Gipuzkoako Artxibo Orokorrari (Tolosa) buruzko 1. sortan** aurkeztutako eskaintza alde batera utzita, prozedurak bere izapideen bidez jarrai dezan.

**SEGUNDO.-** Retrotraer las actuaciones para que, con exclusión de la oferta presentada por GESTIÓN DE ARCHIVOS Y DOCUMENTACIÓN, S.L. **para el lote 1 Archivo General de Gipuzkoa (Tolosa)**, continúe el procedimiento por sus trámites.

Argitze erabaki honen aurka ezin da errekurtsorik jarri. Argitzen den ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunean hasiko da.

Frente a este acuerdo de aclaración no cabe recurso alguno. El plazo para interponer recurso contencioso-administrativo contra la resolución objeto de aclaración se contará a partir del día siguiente al de la notificación del presente acuerdo.

**Donostia, 2022ko urtarrilaren 31 / San Sebastián, 31 de enero de 2022.**